

Angel Toña:

“Gure ekonomia egonkorra izango dela deritzogu”

R.P.S. 175/15 I.L.G.

2. betaurrekoak
DOAN
GAMA ALTUKO
mó progresiboak
erosita
197€



Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira



ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • ERRENTERIA • IRUN • LASARTE • ORDIZIA • TOLOSA
Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Dokorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Dokorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren
osasunaz arduratzen garelako**

Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

f **Facebook**en: Clínica Dental Irazabal **t** **Twitter**en: @Clinicalrazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



IRAZABAL
clínica dental

Julían Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:

Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:

erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:

elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Jose Luis Gorostegi, Silbia
Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:

Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez.

DISEINUA ETA

MAKETAZIOA: J.L. Gorostegi.

ARGAZTI ARLOA:

Leire Iturbe eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TFNOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:

Irekia

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.150 ale.

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA
POLITIKARAKO SAILBUURDETZA)

eskutitzak

Debabarreneko Orfeoia

Beti pentsatu izan dut gure inguruan inoiz edo oso gutxitan ikusi izan ditugula orkestra eta abesbatza famatu edo nagusiek eskainitako musika ekintzak. Horretarako, Donostia, Bilbo edo hiriburu handietara jo behar izaten dugu.

Musika koral sinfonikoa, oso gutxitan entzun edo ikusten da gure inguruan. Entzuten dira aldiz beste musika mota batzuk, Hego Amerikakoa Eibarren adibidez, abesbatzak Elgoibarren eta lurraldeko beste herrietan, abesbatza popularrak kaleetan, baina abestutako musika sinfonikoa oso gutxi. Eskaintza ez da musika klasikoan bakarrik geratzen, filma asko daude "banda sonora"-tzat musika sinfonikoa edo musika korala dutenak.

Abestea gustoko duten pertsona multzo bat osatea da ideia. Abestu, musika egin eta ondo pasatu bien bitartean. Entseguak hamabostean behin izango dira, asteburuetan, eta printzipioz pare bat emanaldi eskainiko ditugu urtean zehar.

Idea gustokoa izatea espero dut, animatu zaitzte, eta abestea atsegin duen edonork eman dezake izena (gizonezkoen ahotsak behar dira batez ere). Debabarrenekoa bazara eta proiektu honetan parte hartu nahi baduzu, idatzi helbide elektronikoa honetara: dborfeoia@gmail.com

Jose Miguel Laskurain
(DEBABARRENEKO ORFEOIA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

KUKURRUKU.- Oilarraren kantuen onomatopeia. "Goizeko lehelengo kukurrukuan jaikitzen zan". Eronka, desafioa. "Donostiakuak erabilli daben kukurrukuari Ondarruakuak oratu detse".

OSKOLETIK URTEN BAINO LEHEN, KUKURRUKU.- Gauzak sasoi baño lehenago egitea. Nagusi izan nahi duten umeei ere esaten zaie.

astean esanak

"Liburu-bonbak atera ezean, latza dugu etorkizuna. Ikus-entzunezkoak nagusi diren gizarte batean, susmoa dut jo behar dugula hitzari gehiago lotutako literatura egitera. Euskeraren transmisioan ere belaunaldi bat galdu dugu, bi ez badira izan. Abertzale eta euskaltzaleak ez dira behar beste jabetu kultura normalizatzen ez bada ez dagoela euskara normalizatzerik, eta ez dagoela beste gizarte bat egiterik eta ezta justizia sozialik ere"

(GOTZON BARANDIARAN, IDAZLEA)

"Goxo jarriko liriteke Espainian Mariano 'merengue-aren' gobernuak diru laguntzak emango balizkio Real Madrili. Are goxoago 'Don Florentino'-ren taldeak irabaziak izango balitu. Ba hori gertatu da gurean: Eusko Jaurlaritzak San Mames Barriaren kapital-zabalkuntzan parte hartzea erabaki duelako. Ez da onargarria erakunde publikoek kirol talde pribatu bati halako laguntzak ematea. Are gutxiago denboraldi honetarako Bilboko taldeak gutxienez 12,5 milioiko superabita iragarri duenean. Denbora tarte horretan 100 milioi inguru sartuko omen dira Athletic-en kutxetan"

(JOSE MARI PASTOR, ZUTABEGILE)

"Ondo pentsatzailearen zentsuraren aurrean gaude. Arazoa noraino heldu den jabetzeko, ez dugu ahaztu behar, Gabonzahar egunean Kolonian gertatutakoaren aurrean, Alemaniako telebista publikoak elkarriketatutako zituen aditu batzuk aurretik agindua jaso zutela euren adierazpenetan arabiar, iparrafrikar, errefuxiatu edo asilatu hitzak ez erabiltzeko"

(JOSEBA ARREGI, SOZIOLOGOA)

"Autobus geltokiarekin gertatutakoa lardaskeria hutsa izan da. Bidaiariak txartela erosteko Pio XIIra jarraitu beharko zuten joaten, gero handik oinez Atotxara joateko autobusa hartzera"

(AINHOA ETXETXIKIA, TICKET SALTZAILEA)



ENRIKE ZUAZUA

Agur, ohore eta ongi etorria

Gizakiak badu zeregina, bai. Mundua behatuz, ingurunea aztertuz, gure berezko ulertu nahi eta behar horrek, hainbat galdera jartzen dizkigu mahai gainean, egunero. Eta gehienak ez dira errazak batere, ez. Urte berria hasi dugu, 2016.a oraingoa. Urte berria bai, baina galdera zaharrak ere bai. Iaz, 2015.ean, tamalez, hainbat senide eta lagun galdu genituen. Jaiotza berriak ere izan dira gure artean, guztion zorionerako. Hemen geratu garenok, ulertu gabeko joan-etorri gazi-goxo horren testigara. Ez da erraza, ez, bizitzaren kate-begiak banan banan, belaunaldika, nola lotzen diren ulertzea. Ez dugu erantzuna asmatu eta ez dugu agian inoiz asmatuko. Bizitzaren misterioa hori baita: misterioa. Nondik? Nora? Noiz arte? Zertarako? Bakoitzaren bakardadean guztionak diren galdera horiei erantzuna ematea zailagoa da oraindik. Elkarkidetzeta izan da beti eibartarron leloa eta, ulertezin horretan, denon artean, elkarrekin, urte berri honi aurre egin behar diogu, ekarriko dizkigun aukera guztiak aprobetxatuz. Badugu, bai, zeregina non gauden eta norantz goazen asmatzeko, aurreikusteko. Joan direnei agur eta ohore. Ez ditugu ahaztuko, ez horixe. Eta etorri berriei ongietorria. Iturri zaharretik beti ur berria...


Eskualdeko turismua Fitur azokan



Debabarreneko ordezkaritza zabala Madrillen egon da, aste honetan egin dan Fitur azokan gure eskualdiaren eskintza turistikua ezagutzera emoten. Euskadiko standaren barruan, Euskal Kostaldearen erakusmahaxan, bisitan jua direneri Debabarreneko gauzarik erakargarrienenak erakutsi detsez: Euskal Kostaldeko Geoparkea, ostatu eta zerbitzuen gida, eskualdeko herrixen gaiñeko informazinua, BTT ibilbidiak, Eibarko zein beste herrixetako museuak...



lagun izan ziren Eibarren RGI edo Ingresuak Bermatzeko Errenta jaso zebenak abenduan, iazko otsailian baiño 13 gehixago. Euretatik 392 emakumezkuak dira eta 429 gizonezkuak. Hillero 619 eurotik (pertsona bakarra) 879 eurora (familia unidadia) doian laguntza hori ixia erdibana banatu da estatuko eta atzerritarren artian.



Buruko gimnasia jubilauendako

Eibarko Ipuruako Jubilau etxian "Gimnasia Mental" izenburuko ikastarua emoten dihardue, memorixia lantzeko eta burua aktibo mantendu nahi daberen jubilauendako. Arduradunak azaldu dabenez "Buruaren gimnasia hori talde giro laisaixan egitten da, umore onian eta bakotxaren erritmuak errespetauta". Astelehenetan izaten dira klasiak, 17:00etatik 18:30xetara jubilau etxian bertan. Baten batek interesa badaka, 615-738381 telefono zenbakirara deittuta emon leike izena.

Gerrarik Ez taldiaren billera irekixa

Eibarren Gerraren kontrako taldia eratzen dabilta eta, gerrak eragittuen dittuan sufrimendu eta bes-telakuen kontra duguazena talde-rra batzera gonbidatu nahi dittue. Taldia-aren asmuak azaltzeko asmuarekin, eguaztenian (27xan) billera irekixa egingo dabe, 19:00etan Arrate Kultur Elkarte-ean. Horrekin batera, interneten Googlegroups-en taldia sortu dabe eta Facebook-en be jaso leike taldia-aren barri.



Ate Irekixen jardunaldixa

Bixar ate irekixen jardunaldixa egingo dabe San Andres eskolakuak, ikastetxia eta bertako eskintza ezagutu nahi dabeneri horretarako aukeria eskintzeko. Ate Irekixen jardunaldixa 16:30xetan hasi eta 19:30xetan amaittuko da eta, bixen bittartian, eskolan egingo dittuen jolas eta jardueretan parte hartzeko aukeria egongo da.

Defibel-en taillarra

Debarrenako Fibromialgia eta Ahulezia kronikaren alkartiak antolatuta, "Psikosintesia: Integraziño proposamena" izenburuko taillarra hasiko dabe datorren astian Portalean. Ana Perez Lizarraga psikoterapeutak emongo dau eta lehen saiua datorren astian, martitzenian izango da, 17:00etatik 19:00etara (beste saiua otsailaren 23an, martxuaren 22xan, apirillaren 26xan, maiatzaren 31n eta ekaiñaren 28xan izango dira). Parte hartzeko izena emon bihar da (plaza mugatuak dira). Informaziñua eskatzeko edo izena emoteko deittu 648 94 75 87 telefonora.



Ana Perez Lizarraga.



Pasabide goratuak

Oiñezkuendako pasabide goratu barrixak egitteko biharrian segitzen dabe herriko hainbat kaletan, errepidia pasatzeko orduan oiñezkuen seguridadia eta irisgarritasuna hobetzeko asmuarekin. Biarrak Probisa enpresari esleitu zetsazen abenduan eta aurrekontua 72.000 eurokoa da.

autuan




ORDUTEGI BARRIXA ANDRETXEAN

Aurrerantzian lehen baiño ordutegi zabalagua eukiko dau Andretxeak, aste honetan hango arduradunak aditzera emon dabenez. Astelehenetik eguenera bittartian goizez (09:00etatik 13:00era) eta arratsaldez (16:00etatik 20:00etara) zabalduko dabe eta barixakuetan, barriz, goizez bakarrik, 08:00etatik 14:00etara.

KOMUNIKAZIO ARDURADUN BILLA GURE ESKU DAGO-N

Gure Esku Dagon, komunikazio arluan IKTen arduradun moduan biharra egitteko norbaiten billa dabilta eta, ahal izanez gero, "taldiaren oin arteko dinamikia ezagutu eta bizi daben baten bat izatia" nahixago dabela diñue. Lanpostuaren inguruko informaziño zihetza interneten eskuratu leike (lansarean.eus/eskaintza/gure-esku-dago/ikt-arduraduna helbidian).



Euskara Elkarte

Urkizu pasealekua 11, solairuartea
 20600 Eibar (Gipuzkoa)
 Tel: 943 20 09 18
elkartea@etakitto.eus
www.etakitto.eus

U R T A R R I L A

			1	2	3				
4	5	6	7	8	9	10			
11	12	13	14	15	16	17			
18	19	20	21	22	23	24			
25	26	27	28	29	30	31			

O T S A I L A

1	2	3	4	5	6	7			
8	9	10	11	12	13	14			
15	16	17	18	19	20	21			
22	23	24	25	26	27	28			
29									

M A R T X O A

			1	2	3	4	5	6	
7	8	9	10	11	12	13			
14	15	16	17	18	19	20			
21	22	23	24	25	26	27			
28	29	30	31						

A P I R I L A

						1	2	3	
4	5	6	7	8	9	10			
11	12	13	14	15	16	17			
18	19	20	21	22	23	24			
25	26	27	28	29	30				



2 0 1 6 k o
 urtarrila-apirila

kultur
 eskaintza

...eta kitto! Euskara Elkarte



Zapatuetako Tailerretarako izen-emotia

Astelehenian zabalduko dabe Zapatuetako Tailerretan izena emoteko epia. 5 eta 11 urte bittarteko haurrendako preparau daben negurako eskintzaren barruan honetxek dagoz: "Kantak eta jolasak" (HH-ko 3. maillakuendako), "Eskulana 'decoupage' teknikaz" (LH-ko 1. maillakuendako), "Jostailuak sortzen" (LH-ko 2. maillakuendako), "Dantza garaikidea mugi-mugi" (LH-ko 3. eta 4. maillakuendako) eta "Maketak eratzen" (LH-ko 5. eta 6. maillakuendako). Tailarrak

Zapatuetako tailerrak

otsailleko zapatuetan egingo dira, batzuk Jacinto Olabeko ludotekan eta beste batzuk Portalean. Bakotxaren inguruko informaziño zihetza www.eibar.eus webgunian jaso dabe eta izen-emotia eskoletan zein interneten (www.astixa.eus-en) egitteko aukeria dago.



Jaso dabe Mogel Isasiko otarra

Mogel Isasi ikastetxeak zozketatutako Gabonetako otarraren irabazlia aurreko astian agertu zan: M^a Isabel Garcia zekan zenbaki sariduna eta, erretratuan ikusten dan moduan, pozarren juan zan eskolara irabazittako otarra jasotzera. Zorionak!

Errioxako ardauak bertatik bertara

Domekan Arabar Errioxako Ardo Eguna-ren lehen ediziñua hartuko dau Untzaga plazak, 11:00etatik 15:00etara. Jaialdixa Mondragon Unibertsitateko Tewo alkartiak antolatu dau, "ardauaren kulturia inguru honetan ezagutza emoteko asmuarekin". Eguna zihar Arabar Errioxako ardauarekiko interesa pizteko ekintzetan parte hartze-ko aukeria eskinduko detse jendiari. Bestiak beste, ardandegixetatik ekarrittako ardu ezbaridñak salgai ipiñiko dittue eta, horrekin batera, ardauari laguntzeko txistorra pintxuak be salduko dittue. Musika eta dantzekin girotuko dabe jaialdixa.



Eibarko Ahal Duguren billera irekixa

Bixar 12:00etatik aurrera Eibarko Podemos-Ahal Duguk billera irekixa egingo dau Arrate Kultur Elkartearen. Gipuzkoako hainbat batzarkiderekin batera Nagua Alba eta Fernando Iglesias diputatuak eta Josetxo Arrieta senadoriak be hartuko dabe parte: "Eztabaida interesgarria

egitteko asmua daukagu eta, bestiak beste, hauteskundiaren ondorengo billakaria aztertuko dogu. Jendiak euki leikiazen galderak eta bestelakuk argitzeko prest egongo gara eta, horregaittik, zenbat eta jende gehiago etorri orduan eta aberatsagua izango da debatia".



URTARRILA

Urtarrilak 26, martitzena:
SAN BLAS TAILERRA, Berbalagunentzat.
18:30ean Portaleko sukaldetan.

Urtarrilak 29, barixakua:
BARIXAKUAK JOLASIAN. Aratosteetako mozorroak. 17:00etan ...eta kitto!-n.

OTSAILA

Otsailak 5, barixakua:
ARATOSTEETAKO PREGOIA.
21:00etan Untzagan.

Otsailak 7, domeka:
Aratosteetako PLAY-BACK LEHIAKETA.
LH 5. eta 6. mailakoak. 17:00etan Untzagan.



Otsailak 9, martitzena:
"BIZI BARATZEA" HITZALDIA.
JAKOBA ERREKONDOren eskutik.
19:00etan ...eta kitto!-n.

Otsailak 17-18-19:
DENDARIAK BERBETAN. "Sartu euskera erosketen zerrendan" kanpaina factoring-earen.

Otsailak 21, domeka:
GURASOAK BERBETAN.
"Tor magoa". 11:30ean ...eta kitto!-n.

Otsailak 23, martitzena:
"EUSKALDUNA NAIZ ETA HARRO NAGO" MAHAINGURUA.
REYES PRADOS eta GORKA AGINAGALDERekin. Moderatzailea: Ibon Gaztañazpi.
19:00etan ...eta kitto!-n.

Otsailak 26, barixakua:
BARIXAKUAK JOLASIAN.
Txiste-jolasak. 17:30ean ...eta kitto!-n.

MARTXOA

Martxoak 1-2:
XABOI NATURALAK EGITEKO IKASTAROA. Xaboi punpuila-ren eskutik.
19:00-20:30 ...eta kitto!-n.

Martxoak 3-4:
II. GILDA LEHIAKETA. Euskeraz Primeran! kanpainako tabernarien artean.

Martxoak 8, martitzena:
"EMAKUMEAK EIBARKO INDUSTRIALIZAZIOAN" HITZALDIA.
ARANTZA LASAren eskutik.
19:00etan ...eta kitto!-n.

Martxoak 11, barixakua:
BARIXAKUAK JOLASIAN.
Fruta-brotxetak. 17:30ean ...eta kitto!-n.

Martxoak 15, martitzena:
GURASOAK BERBETAN.
"Nola jarri mugak HHko umeei", NEREA MENDIZABAL psikopedagogoaren eskutik.
19:00etan ...eta kitto!-n.

APIRILA

Apirilak 12, martitzena:
"FRANKISMOA EIBARREN" HITZALDIA. 19:00etan ...eta kitto!-n.

Apirilak 19, martitzena:
OSTALARIAK ETA DENDARIAK BERBETAN. "Euskararen erabilera publizitatean", ESTITXU GARAIren eskutik.
19:00etan ...eta kitto!-n.

Apirilak 21, eguena:
"MIL A ZIEN" UMOREZKO BAKARRIZKETA. ION MARTINEZren eskutik.
19:00etan Portaleko Areto Nagusian.

Apirilak 22-23:
OSTALARIAK BERBETAN.
Gin-Tonic lehiaketa.

Apirilak 23, zapatua:
IRTEERA, Guraso Berbalagunentzat.
Azpeitiko Tren Museora.

Apirilak 29, barixakua:
BARIXAKUAK JOLASIAN.
Antzerkia. 17:30ean ...eta kitto!-n.

TUTULUMENDI



IDURRE
IRIONDO

Santander Bankuko kaleratzen kontra

Martitzen eguardixan alkarretaratzia egin eben Santander bankuaren parian CCOO, ELA eta LAB sindikatuak deittuta, Eibarko bulego horretan 30 urte baiño gehixago pasau dittuen bihargin bi kaleratu dittuela eta protesta egitteko. Azaldutakua- ren arabera, "pisuzko arrazoi bari- rik abenduaren 10ian kaleratu dit- tue bixak". Legiak horrelako ka- suetarako zer jasotzen daben ja- kinda, diñuenez kaleratuak atzera

be kontratatzeko aukerarik ez da- go ixa, baiña halanda be herririk herri dabiz bankuaren bulego guztietan kaleratutakueri babesa azaltzeko siñadurak biltzen eta beste bihargiñen erantzuna "oso ona" izaten dala esan deskue. Aste honetan Eibarren ibilli dira siñadurak jasotzen eta horren ait- zakixarekin egin zan alkarretara- tzia. Kaleratziak baiño lehen, San- tander bankuak 13 bihargin zi- ttuan Eibarren.



Domiña jasotziaz aparte, aurretik be omendu zeben medikua.

Donostiako domiña Juan Ojangureni

Eibarren jaixotakua dan Juan Ojanguren Ulazia medi- kuak Donostiako udalak emoten daben Hiritar Merezimenduzko Domiña jaso eban martitzenian, San Sebastian jaixaren harira antolatutako ekitaldixan. Ojangurenek urtiak emon dittu Donostiako alde zaharreko anbulatorixuan biha- rrian, iazko abenduan jubilau zan arte eta auzokuak oso es- tima haundixa detse. Berarekin batera Itzurun erraldoi eta buruhaundixen konparsakuak, Katxalin kantzerra daken an- dreri laguntzeko alkartiak, Nazaret ikastetxiak eta Cherno- bil alkartiak be domiña bana jaso eben.



Eibarko bulego aurrian protestau eben kaleratutako bihargiñen alde.
Silbia Hernandez



JAVIER ALDAY ETA MARILOLI RAMOS

5. urteurrena (2011-I-20)

"Aitxa, Ama, Aitxitxa, Amama... Bost urte badira ere gure aldetik juan zaretela, zuen maitasunak eta irribarreek gure bidea argitzen jarraitzen dute. Asko maite zaituztegu" **ETXEKOEK**

Haien aldeko MEZA ospatuko da gaur, urtarrilak 22, 19:00etan hasita, San Andres parrokian

ANGEL TOÑA ondarrutarrak hemendik gutxira urtebete egingo du Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko kontseilari karguan. Datorren astelehenean "Enpresa-eredu berriak garatzeko eta harremanak partekatze beharra Euskal Herrian" gaiaren inguruan jardungo du, Antonio Cancelorekin batera, Armeria Eskolako "Ondo Egindako Lana" programaren barruan. Ekonomialaria, Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta konkurtso-administratzaile moduan jardundakoa, prest azaldu zaigu gure galderei erantzuteko.

"Gaur 25 urte inguruko langabetuak epe luzera lana izango du"



– 'Ondo egindako lana' programaren barruan jardungo duzu Antonio Cancelorekin Armeria Eskolan hilaren 25ean. Zer ulertzen duzu hiru hitz horien esanahiaren azpian?

Zentzu askotan ulertu daiteke esaldi hori. Ondo egindako lana da emaitzak dituen, adibidez. Baita norberaren buruarekin ados egoteko modukoa dena, hau da, dugun onenaren ondorioz lortzen dena. Ondo egindako lana, helburuak betetzen dituen ere izan daiteke. Modu askotan neurtu daiteke lanaren ondo egindako marka hori. Nik esaten dut gauzak eginda daudela ondo eginda daudenean, amaituta daudela, osorik amaitzen direnean. Gure etxean etxeko ardurekin hori aplikatzen dugu, garbiketa adibidez, ondo eginda dagoela dena amaitzen dugunean. Nik uste dut lanean zintzotasunez jokatu behar dugula denok: enpresarioak eta langileak. Bizitzan bezala. Eta prestutasun horretatik abiatuz, ondo egindako lana errazago lortzen dela.

– Hemendik gutxira urtebete izango da sailburu karguara heldu zinela. Espero ez zenuen zeozerekin egin duzu topo orain arteko bidean?

Zuzentzen dudana saila oso zabala da: gizar-te politikak, enplegua eta etxebizitzako azpisailak biltzen dira bertan. Gai oso garrantzitsuak, jendearengan duten eraginagatik. Hila-bete hauetan lan asko egin dugu eta, nik ikusten dudanez, lanaren emaitza ez da antzema-

ten guk nahiko genuke mailan. Azpitik lan asko dago, adostasunak bilatzeko nahian, batzar asko egiten ditugu edozein aldaketa bultzatu aurretik. Hori kanpotik nik ez nuen sumatzen eta barrutik ondo ikasi dut. Nik nahiko nukeena baino pausu txikiagoak ematen ditugu batzuetan, baina pausuak sendoak direla.

– Lan eta gizarte politikan zeintzuk dira gure gizarteak dituen arazo larrienak? Gazteen langabezi kopurua? Soldata duinak? Konpetitibitate ahalmen eskasa? Fiskalitatea?

Sarritan esan dugu Jaurlaritzaren iritziz arazo larrienetako koheretza dela. Krisi ekonomikoan murgilduta egon gara azken urteotan eta horren emaitza denok dakigu. Orain, eta nahiz eta tentuz esan behar dugun, egoera beste bat da. Gure barne produktuko gordinak igoera inportantea izan du 2015ean eta enplegu merkatuan ere aldaketa bat nabaritzen hasi gara. Baina pertsona asko daude gure inguruan errehabilitazio horretatik kanpo gelditu direnak orain arte. Gure ikuspegitik hori da gehien borrokatu behar duguna. Pertsona da gobernuaren helburua eta orain, ekonomia sendatze bidean dagoenean, hobekuntza hori pertsona guztiengan nabaritzea espero dugu. Kohesioa da landu behar duguna.

Bestalde, nik badakit gazteen artean langabezi maila kezagarria dela. Epe laburrera horren aurkako neurriak hartu behar ditugu

eta hartu nahian gabiltza. Esate baterako, errelebo kontratuak indartuko ditugu aurten. Pausu txiki bat baino ez da, baina gure alde-tik jarri dezakeguna da. Baina epe luzera begira, nik ez nuke esango arazo hau larrienetakoa denik. Gure biztanleriari begira, 2029an euskal gizartearen herenak 65 urte baino gehiago izango du. Horrek erronka berriak ekarriko ditu seguru, baina gaur lanean ari diren hainbat pertsonaren erretiro profesionala ere. Horregatik, gaur 25 urte inguruko langabetuak epe luzera lana izango duela uste dut. Gehiago kezkatzen nau zentzu horretan langabezi egoeran dagoen formazio gutxi eta familia buru den heldua.

– Batzuek esan izan dute krisiek hobetzeko bideak erakusten dizkigutela. Sinesten duzu horretan? Edo esaldi bat besterik ez da? Krisitik hobeto irtengo gara?

Ekonomian krisiak gertatzen direla ikusi dugu betidanik. Krisietatik ez dakit hobeto irteten garen, baina bai aldatuta. Krisi aurretik ondo aritzen ziren hainbat enpresek ezin izan diote aurre egin egoera honi, ezin izan dira moldatu. Krisiak eraldaketa dakarrelako. Aurreko egoerara ez garelako bueltako. Tunel batean sartzea suposatzen du, eta tunela ez da hasierako puntura itzuliko, ez, beste egoera batera eramango gaitu eta guk ez dakigu zer aurkituko dugun. Zortzi urte hauetan gure enpresek bezero berriak aurkitu behar izan dituzte, seguruenik, eta orain hauek sendotzen ariko dira. Moldatzen jakin izan

duinak, indartsuago egongo dira, baina igual akaso oraindik ahultasun handiak dituztenak ere izango ditugu, sektore ezberdinetan ekonomiaren hazkundera ez delako berdina.

– Urteak dira Lopez Arriortuak modan jarri zuela "Langile jauna" esaldia. Halakorik badago errealitatean? Enpresariak benetan bilatzen du langilearen parte hartzea enpresan?

Patronalen artean, proiektu ezberdinak dauke langileen parte hartzea suspertzeko eta hemen horretaz zeozer badakigu. Esate baterako gizarte ekonomian ibilbide luzea dugu Euskadin. Lehen esan dudak bezala, zintotasuna badago lan munduan. Enpresarioen artean, langileen artean bezala, zintotasunez jokatzeko dutenak gehienak dira. Enpresaren ongizatea bilatzen dute, ez bakarrik mozkin altuenak. Gatazkak ez direla bidelagun onak badakite eta zentzu horretan nik ez daukat zalantzarik, elkar bizitzeko kultura bultzatzeko planak benetakoak direla.

– Azken lan erreformak karri du onik gizartearentzat? Zenbateraino gaude behartuta horri jarraitzea Euskadin?

Espainiako Gobernuak onartu zuen azkeneko lan erreforma ez dela guk nahiko genukeena edo guk bultzatuko genukeena errepikatu dugun ideia da eta gaur ere azpimarratu nahiko nuke. Guk enpresen ordezkariekin hitz egiten dugunean hauek flexibilitatearen beharra azpimarratzen dute. Eskara ezberdinei erantzuteko malgutasunaz aritzen dira askotan. Eta aurrean langile finkoen ordezkarien kontrako jarrera aldaezina dela ere salatzen dute. Horren aurrean, enpresa askotan, finkoak diren langilegoaren portzentajea ez dute aldatzen, eta tenporalak diren langileen baldintzen arabera lortzen dute

malgutasun hori. Batzuetan, langileen %70ari baldintzak ez dizkiete aldatzen eta beste %30ari malgutasun osoa aplikatu. Gure ustez egokiago litzake malgutasun hori lortzeko akordioak bideratzea.

– Bai enpresariak, eta baita sindikatuek ere, ez dute "ospere" txarra egun? Ez da haien eginbeharra gutxiesten? Zelan aldatu daiteke uste hori?

Langileen zein enpresarioen ordezkarien lana ezinbestekoa da eta printzipio hori errespetatu behar dela argi utzi nahi dut. Bakoitzak bere lana dauka eta interes batzuei erantzuten die. 2007 edo 2008an koka dezakegu azken krisi ekonomikoaren hasiera eta nik uste dut biztanle askorentzako ez dela oraindik amaitu. Denbora luzea daramagu beraz antzeko egoeran: batzuk lana galdu dute, askok, eta beste askorentzako ere lana galtzeko arriskua erreala izan dela nabaritu



Armeria Eskolako solasaldia astelehenean izango da, arratsaldeko 18:00etan hasita.

dute. Testuinguru kontutan hartu behar dela uste dut bai patronalen zein sindikatuen lanen balorazioa egin aurretik. Eta testuinguru honetan patronalen eta sindikatuen arteko akordioak gutxi izan direla esan dezakegu. Nik uste dut dena nahastuta, testuinguru honetan adostasun falta hori agerikoa dela, hortik etor daitekeela zuk diozun tentsazioa. Nola konpondu? Ba neurri berean, akordioak bultzatuz. Gizarteak eskatzen duela esango nuke, baina ez soilik enpresarioen eta sindikatuen artean, ez, baita alderdi politiko desberdinen artean ere. Hori da gure erronka.

– Asko esaten da Euskadiko egoera estatuarena baino hobea dela. Benetan dago hainbesteko aldea? Krisiak eragin txikiagoa du gudan?

Krisia Estatu mailan eta autonomi erkidego mailan era ezberdinean izan du eragin, bai. Gurean, gure enpresek krisia hasi zenean aurre egiteko tresna gehiago zituztela erakutsi zuten, hasieran. Nolabait, gure ekonomia oinarri sendagoetan sustatuta zegoela. Baina krisiak epe luzea hartu duenez, oinarri batzuetan desegonkortasunaren azarnak ere nabaritu izan ditugu geroago. Hemen, langabezia gutxiago hasi da, esate baterako. Baina gure langabezia tasa %16 baino altuagoa izan da une txarretan. Espainiako baino dezentere baxuago, bai, baina Europako beste herrialde batzuen aldean askoz ere altuagoa. Ondorengoari begira, gure enpresen hazteko ahalmena ikusita baikor gara. Ez genuen Estatuako erritmo bera izan produktu gordinak hazkundera negatiboa izan zuenean eta ez du eritmo bera izango hazkundera hasi denean ezta. Baina gure oinarriak sendoak direla uste dugunez, gure ekonomia egonkorra izango dela deritzogu.

Funeraria-Ehortzetxe Mugica

EIBAR **ELGOIBAR**

Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27

Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

Bulegoa Bidebarrieta, 20

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

Helbidea

EIBAR **URKIZU PASEALEKUA, 13**

Orbeako dorreak / 1. solairua

943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

1) Kardiologia	11) Barne Medikuntza
2) Zirugia	12) Radiologia
3) Dermatologia	13) Urologia
4) Dietetika / Nutrizioa	14) Traumatologia
5) Análisi Klinikoak	15) Koloproktologia
6) Ortodontzia	16) Erizaintza
7) Otorrinolaringologia	17) Zoru pelbikoaren errehabilitazioa
8) Pediatria	18) Foto-depilazio Unitatea
9) Psikiatria	
10) Neurologia	

2016an ere euskara helburu



Aurkezpen-ekitaldian 2015. urtearen balorazioa egin zuten ...eta kitto!-ko dinamizatzaileek. *"Nabarmenezkoa da 2015ean izan den hazkundera: ia 300 establezimendu egin dute bat "Euskeraz Primeran!" kanpainarekin, 204 denda eta 77 taberna, hain zuzen ere".* Azaldu dutenez, ez da erraza horrenbeste establezimendu izanda, bakoitzari arreta pertsonalizatua eskaintzea, eta edozein zabalkunde egitea (materiala, informazioa, izen-emateak...). Tabernari zein dendarien aldetik balorazioa positiboa da eta bereziki nabarmendu dituzte eurentzat propio eskainitako jarduerak: gilda-lehiaketa, opariak biltzeko pakete originalak egiten ikasteko ikastaroa... Eibar Merkatalgune Irekitik adierazi dutenez, bestalde, euskararekiko sentsibilizazioa sumatzen da: *"Gaur egun dendari jarduteko lanpostuetan ezinbesteko baldintza izaten da euskaraz jakitea".*

2016rako helburuak:

- **DATU-BILKETA ZEHATZA:** establezimendu bakoitzaren euskararekiko egoeraren azterketa, konpromiso desberdinak hartzeko aukera eman, euskararekiko sumatzen dituzten beharrak eta programaren garapenaren/eraginkortasunaren balorazioa eskatuko zaie. **Denda eta taberna berriak ere bisitatuko dira; beraz, baliteke egungo kopurua gaitzitzea.**
- **PEGATINA BERRIA:** Hasierako nortasuna galdu gabe aldatetaxo batzuk sartu ditugu aurtengo "Euskeraz Primeran!" pegatinaren diseinuan. Lehen berba euskaraz egiteko konpromisoa berretsi edota lehenengoz hartzen dutenei emango zaie.
- Datu-bilketatik eratorritako **BEHARREI ERANTZUN:** Jasotako datuen azterketa eta ondorioztapena egingo da, ahal dela bakoitzaren beharrei erantzuten saiatuz, baliabide pertsonal eta ekonomikoek ezartzen dituzten mugen arabera.
- **ERABILERAREN NEURKETA TABERNETAN:** Taberna barruko erabilera zenbatekoa den neurtuko da. Behaketa zuzena erabiliko da eta kaleka edota zonaldeka egingo da.
- **BEZERO/HERRITARRENGAN ERAGITEA:** Factoryn (dendarien kasuan) zein herriko jaietan (tabernarien kasuan) bezero edo herritarrengan eragiten saiatuko gara hainbat kanpaina edo ekitaldiren bidez.
- **EKINTZA OSAGARRIAK:** "II. Gilda lehiaketa", "Gin-tonic lehiaketa", "Kafe-latte ikastaroa", "Euskararen erabilera publikitatean" hitzaldia, "Eskaparateak apaintzeko modu errazak tallerra"...

Horixe da Berbetan mintzapraktika egitasmoak 2016. urteari begira bere egin duen mezua. Urte hasierarekin batera asmo berri ugari jartzen dizkiogu gure buroari eta, zergatik ez euskara ikasi, praktikatu eta berba egitea? Berbetan egitasmoak urteak daramatza euskeraz berba egiteko zailtasunak dituztenei bide hori errazten, astean behin elkartzen diren mintzapraktika-taldeen bitartez. Azkeneko urteetan, gainera, hainbat adar atera dizkio: Gurasoak Berbetan eta Dendariak eta Ostalariak Berbetan; azkeneko adar horren kanpaina berria, hain zuzen ere, eguaztenean aurkeztu zen.



Ainara Labado eta Maider Aranberri ...eta kitto!-ko ordezkariak Patxi Lejardi Euskera zinegotziarekin herenegun egindako aurkezpenean. Silbia

Antolatzaileek adierazi dutenez, urtarrilaren 25ean hasi eta sei bat astez bi dinamizatzaile arituko dira datu-bilketa egiten. Horregatik *"dendari eta tabernariei datu bilketa gurekin egiteko denboratxo hori eskaintzeko ahalegina egitea eskertuko genieke".* etakitto.eus/berbetan atalean Berbetanek eskainiko dituen jarduerak guztien berri duzue, eta izena emateko edo dinamizatzaileekin harremanetan jartzeko aukera ere badago.



Establezimenduen bisietan erabiliko den galdetgia eta banatuko den katalogoa.



IHESI BABESA


datozeneri, emoteko prest

Errefuxiatu-eremuetara aillegatzia lortzen dabenak jantzittakua baiño ez dabe eukitzen eta, hori ikusitta, jende horrendako arropa beruak bidaltzeko asmotik sortu zan HOTZ izenekua. Mireia Agirrebeña eibartarra, beste askoren moduan, egunero aillegatzen diran albistekin kezkatuta, errefuxiatuerei laguntzeko bidiak billatzen hasi zan eta holan jaso eban Eibar eta inguruko HOTZ talde diferentien barri: "Erropa beruak bidaltzeko asmo horretatik sortu dan herri mugimendua da Hotz". Eibarren, Elgoibarren, Iurretan, Azkoitin, Bergaran... herri diferentietan taldiak sortzen eta antolatzen hasi dira. Asmo nagusiña "neguko hotzari aurre egitten laguntzeko epeltasun apur bat bidaltzia" litzakeela diño, "eta laguntasuna ahalik eta azkarren bidaltzia komeni da, neguko hotzari aurre egitteko arropak lehenbailehen jaso deixen".

Kontau deskunez, Bergarako taldekuak bihar haundixa egitten dihardue eta aurreko hillian egindako kanpaiñari esker 40.000 kilo arropa jaso zittuen. Jasotakuak

sailkatzen, pakietetan sartzen... boluntarixuak, moduren batian lagundu nahi daben herritarrak ibiltzen dira. Jasotakuaren sailkapena oso modu zorrotzian egitten dala azaldu desku: "Toki bako txera benetan bihar dittuen gauzak bidaltzen ahalegintzen ari dira, bihar ez dittuenak alperrik bidaltzen ez ibiltzeko".

Bergarakuen ondotik Hotz-Elgoibar taldea oin dala egun gitxi, aurreko astian sortu eben, baiña hónetxek be badabiltza biharrian. Gauzak biltzeko lokala azkar lortu eben eta.



Errefuxiatu gehixenak Greziatik (Lesbos) eta Frantziatik (Calais) sartzen dihardue egunero. Aillegatzia lortzen dabenak oso baldintza larrixetan datoz eta laguntasuna bihar izaten dabe.

Oin momentuan hónetxek jasotzen ari dira: lotarako zakuak, mantak, kanping dendak, negu-neguko arropa eta oiñetakuak (erosuak, ahal dala botak eta zapatillak); toallak, euritarako pontxo eta zirak, guardasolak eta haur txikixak garraiatzeko motxilak. Sailkapena zein bidalketak erraztiarren arduradunak bakarrik hórretxek, hortik kanpoko beste ezer ez eruatia eskatzen dabe.



Azido hialuronikoko
ile-tratamendu berriak

Khôl
Estilistak

Estaziño, 4 943 254776



● **tartak**
● **enkarguak**
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Europa Ekialdeko errefuxiatu kanpamentuetara bidalketak egiten hasitta dagoz, baiña bestelako modurik edo baliabiderik topatzen daben bittartan, oingoz beste alkarte eta erakundien bittartez egiten ari dira, "paketiak bidaltzia oso karua da eta horretarako dirurik ez dago". Gauzak holan, ointxe batez be bidalketa-gastueri aurre egittek diru premiñia dake eta, horregaittik, Eibar eta inguruko herrixetan dirua batzeko itxulapikuak taberna, denda eta bestelako tokixetan ipintziari ekin detse, nahi dabenak horretan laguntzeko dirua emoteko. HOTZ taldekuak egiten dittuen eskaeriak eta bestelako informaziñua zabaltzeko sare sozialak erabiltzen ari dira eta nahi dabenak Facebook-en talde bakotxaren mar-txia segitzeko aukeria daka.

CARE alkartia lokal barik

Ane Basurto eta Patricia Cardeñosa gaztiak errefuxiatuen gaixarekin arduratuta eguazen eta, horregaittik, "zeozertan laguntzeko asmuak bultzatuta" sartu ziran iazko azaruan sortu zan CARE Eibarko Errefuxiatuen aldeko taldian. Taldia "gerratik eta heriotzetik ihesi doiazanen harre-riari lehenbailehen ekiteko presiño modura" sortu zala diñue, "politikuk ezer egi-



Ane Basurto eta Patricia Cardeñosa Eibarko CARE taldian dagoz sorreratik.



Batez be, neguko hotzari aurre egittek materixala batu eta bialdu nahi dabe, ahalik eta azkarren errefuxiatuak ezer barik aillegatzen diralako.

tten ez dabelako". Madrillen egoitza dakan Siriako Herrixari Laguntza alkartiari ez eze, Sirian, Calais-en (Frantzia) eta Lesbosen errefuxiatueri laguntzen diharduen beste alkartiekin ahal daben neurrixan kolaboratzen dau. Azken hillaletietan 12.000.000 bat desplazamendu gertatu dirala estimatzen dabe: "Calais-en Siria, Afganistan, Eritrea, Etiopia, Sudan, Somalia eta Iraketik ihes egin daben 6.000 errefuxiatu baiño gehixago dagoz".

Kontau deskuenez, "ointxe 10/15 kide gara eta biharrerako prest gagoz, errefuxiatueri bidaltzeko materixala biltzen has-

**CARE Eibarko Errefuxiatueri
Laguntzeko Taldia**
Facebook-eko helbidia:
www.facebook.com/care.eibar.
E-maila: care.eibar@gmail.com.
Telefonua: 667 317 853
eta 637 865 109
(astelehenetik barixakura,
12:00etatik 19:00etara)

Aste honetan hasi dira Eibar eta inguruko herrixetan itsulapikuak banatzen nahi dabenak dirua emoteko.



teko desiatzen, baiña jendiak emoten dabena batzeko lokalik ez dakagu eta, baten bat lagatzen deskuen bittartian, ez dakagu aurrera egittek modurik".

Materixal bilketia egittek lokal billa hasi ziral hillebete eta erdi pasau da, "baiña ez dogu topatzen lokala lagatzeko prest dagan iñor, udalera be jo dogu, alkatiari lokalen bat lortzeko laguntza eskatu desagu... baiña oiñ arte ez dugu ezer lortu".

Edozelan be, laster lokalen bat lortzeko eta biharrian segitzeko esperantza dake: "Izan be jende mordua dago gauzak emoteko prest, nere etxian ezin dot ezer gehixago sartu, lokalik ez eukitzian jendiak emondako gauzak etxian gordetzen hasi nintzan baiña horretarako txiki geratzen hasi da". Taldiaren premiñiak, eskaeriak, laguntzeko zabaltzen diran bide barrixak... danaren barri emoteko sare sozialak erabiltzen dittue eta gaixarekin lotutakuenda-ko aukeratu daben traola #ComoSePuedeColaborar da eta astero billera irekixak egiten dittue, barixakuetan 19:30xetan Portalean.

12 urte Saharan itxaropena pizten

Telebisiñuetan Siria eta beste herrialde batzuetatik ihesi zoiazenen irudixak lehelengoz erakutsi zittuenian, gizartiak horren aurrian izandako erreakziñuaren parekorik ez dogu ezagutu. Holako irudixak sekula ikusi bari rik geguazen gehixenak, hortik herrittarrengan eragindako inpaktua be horren haundixa izatia. Baiña jakin badakigu horren pareko baldintza gogorretan bizi bihar diran millaka herrittar daguazela munduan. Eta adibide billa ez gara oso urrutira jua bihar. Madrilgo gobernua 1975ian bittan, Maroko eta Mauritaniaren artian, banatu eban Mendebaldeko Sahara eta, orduz geroztik, saharar herrixa sakabanatuta bizi da. Saharar asko, 260.000 inguru, Tindufeko basamortuko errefuxiatuen kanpamenduetan bizi dira eta egunero hamaika trabari aurre egin bihar izaten detse. Horregaittik, aillegatzen jakuen laguntasun guztia bihotz bihotzez eskertzen dabe.

Eibar Sahara alkartekuak, urtero egitten dabenaren bidetik, aurten be bat egin dabe SEADen Aldeko "Otsailak 27" euskal elkarteen koordinadoriak abiatu daben "Sahararen Aldeko 12. Euskal Karabana: Piztu Itxaropena!" kanpaiñiarekin. Kanpamentuetarako premiñazko produktuak (arroza, pasta, lekaleak, azukria, atun eta sardiña latak, olixua eta konpresak) batzen dihardue Eibar eta Elgoibarren. Lagundu nahi dabenak aittatutako produktuak erosi eta hórretxek biltzeko puntuetako batian

Lehiaketa

Karabanari buruz, zuk egindako marrazkia eta esaldi batekin margotutako kamioia bidali nahi dugu.

SAHARAREN ALDEKO 12. EUSKAL KARABANA SOLIDARIOA 12º CARAVANA VASCA SOLIDARIA CON EL SAHARA

Janari bilketa-Recogida de alimentos
Eiban: Villalba, BM, Isasi Okindegija,
Eroski eta El Corte Ingles,
Elgoibar: Eroski eta BM.



Izena eta abizenak:
Adina:
Telefonoa:

(Marrazkia, zure ikastebean entregatu ezazu)

lagatzeko aukeria dauka. Eibarko bilketa-puntuak Villalba, BM, Isasi okindegija, El Corte Ingles eta Ipurua, Urki eta Urkizuko Eroski dendetan ipiñi dittue eta Elgoibarren, barriz, Eroski bixetan eta Netto-BM dendetan dabilta produktuak jasotzen. Sahararako janari-bilketia urtarrillaren 30era arte egingo dabe.

Marrazki lehiaketa

Kanpaiñaren harira, bestalde, Eibar-Sahara Elkarteak ikasliendako (HH, LH 1., 2. eta 3. mailak eta LH 4., 5. eta 6. mailak) marrazki lehiaketa antolatu dau aurten. Marrazkixak alkarteko zigillua dakan kamioiarekin preparau dittuen plantillen fo-

tokopixetan (DinA4 neurrixan) egin bihar-ko dira. Orrixak eskoletan edo eibarsahara@hotmail.com helbidera idatzitta eskatu leikez eta lanak urtarrillaren 27rako (dato- rren asteko eguaztenerako) entregatu biharko dira. Epai-mahaixa Eibar-Sahara Elkarteke kidiak eta Eibar foball taldeko jokalarixak osatuko dabe eta kategorixa bako- txeko sari bana emongo dabe. Lehiaketa- tara aurkeztutako marrazki guztiak Untza- gan ikusgai ipiñiko dittue otsaillaren 13an eta sari banaketia be egun horretan, 13:00ian, egingo dabe. Lehen sarixa es- kuratzen daben marrazkixa aurten Sahara- ko kanpamenduetara karabanen juango di- ran kamioetako batian margotuko dabe.



La Salle

Eibar

**Urtarrilaren 25etik
otsailaren 5era
(biak barne)**

**HAUR HEZKUNTZA,
LEHEN HEZKUNTZA eta
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA**

La Salle Isasi eta Azitain Ikastetxeetan

AURREMATRIKULA ZABALIK 2016-2017 IKASTURTEA

Tfnoak. 943 202 133 / 943 121 698

www.lasalleibar.com



gremioen gida



ANTENAK

AROTZAK

ELEKTRIZITATEA

BALATZ c.a.
Instalakuntzak eta konponketak
antena - telebista
Bidebarrieta, 37 Tfnua. 943 20 05 08
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

EDER
ateak
ATEAK, HORMA-ARMAIRUAK, TARIMAK...
BURDINDEGIKO ARTIKULUAK SALGAI - GILTZEN KOPIAK
EBANISTERIA - ERAKUSKETA **iraner**
Bizkaia etorbidea, 10 (ERMUA)
943-174925 iranercb@gmail.com 666918745

egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.
Ego Gain, 9 ac 677 51 24 62
ego.luz@hotmail.com 630 95 73 45
943 20 06 97

Antena instalazioak
TDT / Satelitea
Informatika Zerbitzua
Sareak /Antibirusa
Sistema Operatiboa
Miguel Angel Garcia
Mugikorra: 609 250 858
garciamiguel@movistar.es

SUKALDE ALTZARIAK
*
AROTZEGIA
Iparagirre Anaiak
F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

943 530 356
688 674 242
669 934 964
electricidad iparelek s.l.
INSTALAZIOAK ETA
MANTENIMENDUA
iparelek@gmail.com iparelek@iparelek.com

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnua. 943 12 73 50
www.trinmer.com
trinmer
TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

ulmar
S.L.
metalezko
eraikuntzak
aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar
Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50
ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

THELECER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko
urgentziak
610 532 922

ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. INSPECCION
TECNICA DE
EDIFICIOS
ERAIKINEN
IKUSKAPEN
TEKNIKOA
info@ajtoficina.com tlf. 943 20 18 50
E.I.T.
AJT zihurtasuna S.L.p.
Barrena, 6 - behea esk.

HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu deitu 943-206776 telefono zenbakira

ERREFORMAK

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

PROIEKTUAK-ERREFORMAK-BERRIKUNTZAK

ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-
605 713 168 943 744 019

GARBIKETAK

**Limpieza
Multiservicio
Eibar**

Superficie
mota guztietako
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 031 082

Mobila 688 609 171

www.multiservicioeibar.com Barrena, 21-1.F



**TREJO
GARBIKETAK S.L.**

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Sorluze

*Garbiketa eta
mantenimendua*

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobeez
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

ITURGINTZA

MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GAS INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia

TAILERRA: ERREKATXU, 3an
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristaleriaacha.com **ERAKUSKETA**
eta faxa: 943 203 903 Arikitzaneko Zubian

PINTURAK

DECORACIONES
AIXA
José Luis Iriondo

Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etxerakoak
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxa.
943 20 05 94

T. Etxebarria, 8 - behea

baglietto
PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa

Errebal, 21

Tel/Fax: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

MALVAR
PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea

Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900

Mobila. 656 784 396


VICTOR GONZALEZ FRAIZ
PINTURA
OROKORREAN

BARNE eta KANPOko
dekorazioa eta pintura,
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-
696-565394 / 943-030540
victor-fraiz@hotmail.com

Angela Linares, Lagun Taldeko monitorea:

«Sortzen den giroa oso ona izaten da»



Datorren larunbatean eta hurrengoan, arratsalde alai eta dibertigarria pasaraziko diete Lagun Taldekoek Unibertsitate Laboralera euren ikuskizuna ikustera joaten direnei. 20 urte baino gehiago daramatzate sasoi honetan dantzaz eta musikaz beteriko lanak taularitzen, eta aurtengo "!!Salvese quien pueda!!" ikuskizunarekin prest daude bi funtziotan izango diren ikusle guztien ondo pasatzeko nahia asebetetzeko. Gutxitu Intelektuak Elkarteko monitorea den 19 urteko Angela Linares eibartarrarekin egon gara bere iritzia eta sentsazioak ezagutzeko.



- Zenbat jende egongo zarete ikuskizunean eta zer eskainiko duzue?

Lagun Taldean 30 kide eta 15 monitorea gaude. Batzuk atze aldean egongo dira, makillaje eta jantziekin laguntzen, eta beste batzuk taula gainean. Niretzako taula gainean jartzen naizen lehenengo aldia da. Lehen ni ikuskizuna ikustera joaten nintzen eta hor goian egoteko gogoia sortu zitzaidan. Bi ordutako funtzioak izango dira, eta musika eta dantzez beteta egongo dira. Sorpresari, ezusteari, eutsi nahi diogu, baina, beti bezala, oso dibertigarria eta alai izango dela esan dezaket. Sortzen den giroa oso ona da eta jendez gainezka egoten da beti.

- Nola joan dira entseguak?

Urrian hasi ginen planifikatzen eta entseguei abenduan ekin genien. Azken egunetan jo ta sua gabiltza! Eurak, antzezleak, oso pozik daude, gogoia daukate antzezlekurara igotzeko. Batzuk berriak dira, eta beste batzuk urteak daramatzate, baina betiko ilusia ez zaie falta.

- Ikuskizun honetaz aparte nolako gauzak egiten dituzue Lagun Taldekoek?

Argatxako Jardinetan dakagu lokala eta astean hiru egunetan egoten gara. Astelehen eta asteazketan fitxak egiten dituzte, irakurketa lantzen da, matematikak... Eta ostiraletan mahai-jokoak eta eskulanak izaten dira. Adin desberdinetako kideak daude, gazteak 14 urte ditu eta zaharrenek 40 inguru izango ditu. Horretaz gain, ikasturte hasieran eta amaieran irteerak egiten ditugu.

- Nola animatu zinen taldean sartzera?

Ezagutzen nituen eta gogoia nuen. Beraz, parte-hartzera animatu nintzen. Benetan oso aberasgarria da, beste modu batean ikusten dute bizitza, beste gauza batzuk transmititzen dizkizute, gustora sentiarazten dizutenak. Haur Hezkuntzako goi-zikloa egiten dihardut, eta amaitzerakoan hezkuntza bereziko zerbait ikasi nahi dut. Premia bereziak dituztenekin lan egieta gustatuko litzaidake.

www.aldatze.org

aldatze

**V. ALDATZE
DANOK GARA
urtarrilaren 30ean
11.00etan**



Herritik kanpo ere, XAKELARI

Bestela ere ohituta daude Eibarko Klub Deportiboko xake batzordeko ordezkariak atzerriko torneotan parte hartzera. Italian, Holandan eta Frantzia jardundakoak ditugu herriko xakelariak. Kirol horrek eskatzen duen kontzentrazioari jarraituta, ikasketetan ere lortzen dute balio bera garatu eta aurrera egitea. Horrela, une honetan Haritz Garro Chicagon dago, Edu Olabe Argentinan, Asier Etxagibel Suedian eta Jon Trebiño Luxenburgon, laurak ere klubeko xakelari onenen artean daude. Laurek dute berezitasun bat: euren ohiko eginbeharretik kanpo ere xakeari eusten diotela, gehienek bizi diren tokietako klubetan jarduteko. Zaletasunak ez dio mila kilometrotako distantziari errepartzen!

Haritz Garrok Chicagoko NorthWestern Unibertsitatean jarraitzen ditu bere ikasketak eta bertako taldearekin hartu izan du parte Chicago Chess Leaguen. Ez parte hartu bakarrik, final handian Chicagoko taldekako xake ligako txapela ere jantzi baitzuen. Estatu Ba-

tuetako energia handiko fisika laborategian jokaturako lehia horretan partida guztiak irabazi zituen bere taldeak. **Jon Trebiñok**, bestalde, Luxenburgoko Federazio Kopa irabazi zuen Gambit Bonnevoie bere taldearekin finalean Differdange taldeari irabazita. Trebiñok lanean dihardu bertan eta dagoeneko luxenburgotar moduan agertzen da FIDE Xakeko Nazioarteko Federazioaren zerrendetan. Klub Deportibora bueltatzen denean atzerritar moduan fitxatu beharko dute akaso. **Asier Etxagibel** arrasatearra bertako Arrasate-Arlutz taldeko jokalaria da, baina urteak dira "lagata" Eibarko klubarekin jokatzeko duela; aurrean, gainera, xake arloko Eibarko Kirol Saria jaso zuen gabon zahar egunean. Suediako Västeras herrian dihardu master bat egiten eta Suediako ligaren Mendebaldeko 1. mailako taldearekin jardun du. **Edu Olabe** Australiar izan zen iaz lan egiten, Sidneytik gertuko hiri batean eta Sidney Hiriko Txapelketan hartu zuen parte. Eibartarra ez da geldirik egotekoa eta aurrean Argentinan dugu.



Eibarko Hiria xake torneo jokatzeko da urtero sanjuanetan. Argazkian, azken edizioko irabazleak; ezkerrean, Mikel Larreategi xakelaria.

Taldekako ligan sartuta

Irailean hasita, zazpi-zortzi asteburu irauten duen Gipuzkoako banakako txapelketa egin eta gero, hilabete honetan taldekako liga txapelketari ekin zioten Klub Deportiboko xake talde biek. Mikel Larreategi batzordeko ordezkariak bigarren taldean jokatzeko du eta, horrez gain, epailea ere bada, hainbat torneotan jardundakoa. Berak azaldu digunez, pozik daude gaur egungo egoeraz eta itxaropentsu begiratzen diote orain dela aste bi hasitako ligari: *"Gure taldeak azken denboraldian igo zuen lehenengo mailara eta mailari eutsiko diogulakoan gaude"*. Xabier Beorlegi, Emilio Freire, Jose Antonio Garrido eta Mikel Baena izan ditu lagun Larreategik jokaturako bi jardunaldiotan. Jon Aranek eta Diego Ol-

mok txandatu egin dira eta jardunaldi batean preferente edo maila goreneko taldearekin eta bestean 1. mailakoarekin jokatuko dute. Iaz denboraldi bikaina egin zuen lehen taldearekin, bestalde, Julen Garrok, David Perezek eta Jon Esturok jokatuko dute bi jardunaldiotan, eta laugarren jokalaria Olmo izan da batean eta Arana bestean. Jokaturako jardunaldi bietan, Eibar A-k 1,5-2,5 irabazi zion Donostian Easo B-ri eta bina berdindu Eibarren Baionarekin; Eibar B-k, bestalde, bina berdindu zuen Hernanin bertako A taldearekin eta, lehia gogorrean, 1,5-2,5 galdu zuen Idiazabal A-rekin Deporren.

Harrobia ere ondo zaintzen dute xake batzordekoek eta, Larreategik dioen moduan, *"xake eskolan 10 laguneko bi talde daude, astean ordu batean dihardutenak"*. Taldeak osatuta badaude ere, interesatuek barixaku arratsaldetan jo dezakete Deporren. Kontzentziorako kirol proposa dugu xakea, *"partida ofizialak 3-4 ordu irauten dute-eta"*.



Izadi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA
SER
104,0 FM

DESCUBRE-TÉ

Teak, kafeak, txokolatuek, ezta... eta baxera bereziak!!

Probaleku, 4 - Bis (ERMUA) 943 03 15 81
descubrenew@hotmail.es www.teteriadescubre-te.com

Goierri Garaiak eraman zituen Bolunburu Krosaren lasterketa nagusiak



Argazkiak: Leire Iturbe



Ainhoa Sanz emakumezkoetan eta Ander Sagarzazu gizonezkoetan nagusitu ziren domeka goizean jokaturako Bolunburu Memorialaren 66. edizioko senior mailako lasterketetan. Gipuzkoako kros txapelkunak aurrea hartu zien helmugan Txindokiko Maria Ibañezi (22 segundora) eta Nere Arregi taldekide maratoilariari (24ra). Gipuzkoako azpi-txapelkunak, bestalde, lasterketako azken itzulian laga zuen atze-

an Aloña Mendiko Sergio Garcia (12 segundora helmugan) eta 47 segundora helmugaratu zen Txindokiko Alexander Oiarbide. Bezperako euriak ibilbidea lokaztu eta hotz egin bazuen ere, eguraldi bikaina egin zuen antxintxiketan egiteko eta baita bederatzi lasterketak gustora ikusteko.

300 bat atleta izan ziren parte hartzen eta Klub Deportiboko antolatzaileek probaren balantze baikorra egin zuten.

Urbat Master talde berriaren estreinaldia waterpoloan

Bihar Orbeako igerilekuan izango da ekitaldi hori, Urbateko historian pasatako hainbat jokalariren parte-hartzearekin. Antolatutako txapelketan Depor Bilbao, Lautada, Askartza, Sestao eta Logroño izango dira, Urbatekin batera. Bestalde, azken asteburuan Kopako partidua jokatu zuen Urbat waterpoloko talde nagusiak eta, Getxori 11-6 irabazita, txartela eskuratu zuen Euskal Herriko Kopako final fourra jokatzeke. Taldearen historian lehen aldia da hori lortzen dela.

Igerilekuak itxita bihar

Goian aipatutako master senior txapelketa dela-eta, Orbeako igerileku estalia itxita egongo da 09:00etatik 14:00etara. Eta igeriketako parte-hartze eta errendimenduko ligako 4. jardunaldia jokoan izango dela-eta, Ipuruako igerilekua itxiko duite arratsaldean, 16:00etatik 20:00etara.

Pilota afizionatua gaur Astelenan

Jaialdi erakargarria izango da gaur 19:15ean abiatuko dena Eibarko Katedralean. Hor Klub Deportiboko pilotariak Tolosa eta Andoaingo ordezkarien aurka jokatuko dute infantiletan eta bergararrei egingo diete aurre seniorretan. Bestalde, azken asteburuan jokatutako Gipuzkoako eta Udaberri Txapelketako emaitzak honakoak izan ziren: Udaberriari Zubizarreta-Lantz bikoteak partidu handia egin eta 22-a gainditu zuen Iparraldeko bikotea; eta errendimendukoan Azkargorta-Azkoitia infantil mailako bikotea 18-9 nagusitu zitzaizen Azpeitiakoei. Narbaiza-Agirresarobe Deporreko bikoteak, bestalde, 22-16 galdu zuen Egiako pilotaleku irristakorrean.



Ardoa eta Arrainaren bidetik segika

laz hasi zuten zikloari jarraituta, Eibarko Klub Deportiboko Mendi Batzordekoek etapa berri bat egin zuten aurreko zapa-tuan, oraingoa Mendibil eta Otxandioren artean. 40 bat lagun joan ziren, eguraldi ona aprobetxatuta, 22'7 kilometroko ibilbidea egitera eta elurrak zuritutako paraje ederraz gozatzera.

Ipiña garaile Dimako Txotx golf torneoan

Jose Esteban Ipiña eibartarrak bereganatu zituen domekan Diman jokatutako pitch & putt torneoko scratch eta handicap sailkapenak. Bata zein bestea stableford modalitateari zegozkien eta golfeko pitch & putt golf modalitateko nazioarteko federazioaren arautegiaren arabera jokatu ziren.





Lau neska selekzioarekin

Ez Dok Eibar Rugby taldeko lau neska deitu dituzte euskal selekzioarekin entrenatzeko bihar goizean Hernaniko Landare-tokin. Marina, Amaiur, Eurne eta Lucia dira laurak. Bestalde, Avia Eibar Rugby senior taldeak garaipen borrokatua lortu zuen Unben Real Oviedo Rugby taldearen aurrean: atsedendian, esaterako, asturiarrak zihozzen aurretik (8-14). Bigarren zatia zatarragoa izan zen, baina eibartarrek markagailuan aurretik jartzea lortu zuten eta, amaierarako zortzi minuturen faltan, garaipena emango zien entsegua lortu zuten. Azken emaitza: 25-23 eibartarren alde.

Garaipen handia eskubaloian

Somos Eibar Eskubaloiak garaipen handia lortu zuen Anaitasuna talde nafarraren kantxan, iruindarren bi urte zermatzaten-eta partidurik galdu gabe euren kantxan. Azken aldiko partidurik biribilenean, 24-32 nagusitu ziren eibartarrak eta, azken garaipenei esker, Fernando Fernandezek mutilak sailkapeneko hirugarren postura igo dira. Lehen itzulia amaituta, Tolosa eta Trapagan dituzte aurretik. Azken hauek harrapatzeko bidean, bihar Ereintza izango dute aurrean Erreterian: neurketa hori ez da erraza izango, lehen itzulian berdindu egin baitzuten Ipuruan.

Eibarko autobusa agurtuko dute zaletuek Bilboko Moyuan

Giro bikaina izango da domeka goiz eta eguerdian Bilboko San Mames inguruan, 12:00etan hasiko den Athletic-Eibar partiduaren aurretik. Taldearen martxa onak animatuta, trenak eta Premier Bidaiak-ek antolatutako beste 11 autobus beteko dituzte Eibarko zaletuek. Domekarako antolatutako egitaraua honako hau da: 08:25ean, banderak banatzea; 08:30ean, Lambretta motorren irteera, Untzagatik; 08:45ean, Atxurirako lehen trenaren irteera, Ardantzatik; 09:30ean, Bilboko Euskaldunarako autobusen irteera, Torbio Etxebarriatik; 10:00etan, trenez joandakoak Ustekabe txarangarekin eta Lambretta klubekoekin batuko dira, Arriagan; eta 10:15ean, autobusez joandakoak dultzaineroekin batuko dira, Euskaldunan. Eibar foball zaletuek lagunduta, Moyua Plazaraino kalejira bi abiatuko dira (bata Arriagatik eta bestea Euskaldunatik) eta 10:30ean, kalejira biak Moyua Plazan batzean, San Mamesen jokatuko den partidua ikustera joandako zaletu guztien kontzentrazioa egingo dute. Ondoren, 11:45ean beste kontzentrazio bat deitu dute (goikaldeko hego tribunan), entrenatzen duten bitartean jokalaria animatzeko.



Jota Peleteiroren bueltak zaletuak ilusionatu ditu, kontuan izanda igoyerako urtean eskaini zituen jokia eta golak.

Eibarko.ehbildu
www.eibar.ehbildu.eus

HERRI BATZARRA
2016ko Udal Aurrekontuak
Urtarrilaren 26an, 19:00etan
Kultun Ezagutu gure proposamenak
eta etorri zureak egitera!



JUAN DIEGO INGELMO
(Disenatzaile grafikoa):

- Eibarko aratosten kartela jendez beteta agertzen da. Zer adierazi nahi izan duzu?

Bai, nire hasierako ideia kartela jendez betetzea zen eta eibartarrek begirada azkar batekin konturatzea Aratosteei buruzko kartel bat dela. Aratosteetan egunerokotasunetik ihes egiten dugu denok: pertsona arruntak gara eta, bapatean, Aratosteak iristen direnean, edozer gauza egiteko eta edozer gauza jatzeko prest egoten gara.

Kartelean Ignacio Zuloaga margolaria eta Takashi Inui Eibar Futbol Taldeko jokalaria sartu ditut. Gainera, kitarra bat jarri diot soldaduari Eibarren musikarekiko dagoen zaletasuna adierazteko, eta nola ez,


“Ignacio Zuloaga eta Takashi Inui sartu ditut kartelean”

Castellongo Juan Diego Ingelmoren “Festak” izeneko lanak irabazi du Eibarren 2016ko Aratosteak iragarriko dituen kartel-lehiaketa. Ofizioz disenatzaile grafikoa eta afizioz margolaria da, eta 2011an Eibarko San Andres jaien kartel-lehiaketa irabazi zuen. Kartelak egiten esperientzia handia dauka eta alor honetan egin dituen lanek hainbat jai eta ekitaldi iragarri dituzte: Ceuta, Punta Umbria eta Donostiako Aratosteak, Guadalajarako Solsticio Folk Jaialdia, Burrianako Aste Santua eta fallak...

gastronomiak ere badauka bere lekua, lapikoz mozorrotutako pertsoniarekin. Kartelak egiteko orduan, aurretik dokumentazio lana egiten dut, leku bakoitzari buruko informazioa biltzen dut eta guztia aztertu ondoren hasten naiz ideia sortzen.

- Zer nolako teknika erabili duzu?

Pertsonaia guztiak bana-banan egin ditut eta gero montajea egiten joan naiz. Normalean marrazki bektorialak egiten ditut ordenagailuaren bitartez, baina oraingoan, lehenengo aldiz gainera, tableta grafikoa erabili dut eta arkatx batekin eskuz joan naiz pertsonaia marrazten. Ondoren, beti egiten dudana bezala, photshop-a erabili dut koloreatzeko eta gerizak gehitzeko.



Taxian girotutako komedia biribila

Gaur 20:00etatik aurrera Pentacion taldeak “Taxi” izenburuko antzezikizuna taularatuko du Coliseoan. Josema Yuste eta Alberto Papa-Fragomenek zuzendutako lan honetan protagonista nagusia taxi-gidari bat da, itxuraz aparteko berezitasunik ez duen gizon arrunta. Baina lehen begiratuan gorabehera gabeko bizitza dirudien horrek benetakoa ezkutatzeko du: taxi-gidariak emazte bi dauzka aldi berean eta, gainera, bakoitzarekin auzo ezberdin batean bizi da. Hortik aurrera sortzen doan korapiloa askatzeko nahikoa lan izango du gizonak. Sarrerak 18 euro balio du.



Ustekabe, Donostiatik Bilbora

Aurten ere Donostiako Danborradan egon dira Ustekabe fanfarrekoak. Gazteak San Sebastian bezperan ibili ziren kaleak musikarekin girotzen, Bar Antonio konpainiakoekin batera goizaldeko 05:00ak arte. Eta asteburu honetan, domeka eguerdian jokatu den Athletic-Eibar partidua harira, zaletuek hainbat ekitaldi berezi antolatu dituzte, tartean kalejira bi eta horietako batean jardungo dute Ustekabeok, Bilboko kaleak musikarekin alaitzen.



Ustekabeok goizaldeko 05:00ak arte ibili ziren San Sebastian bezperan.



Danborradaren kontzertua etzi

San Sebastian egunaren inguruan urtero egiten den kontzertu berezia domekan izango da, 12:30ean Coliseo antzokian. Usartza Txistulari Taldearen eskutik egingo den kontzertuan, txistulariek Eibarko Danborradako hainbat kideren eta "Molto Vivace" metal boskotearen laguntza izango dute Eibar, Donostia, Urnieta, Mutriku eta Debako danborradetako doinu ezagunak interpretatzeko: "Donostiako Martxa", "Diana Txikia", "Diana", "Eibarko Herria", "Idiarena", "Urnietako Ereserkia", "Eibarko Martxa", "Danborren polka", "Mutriku Herria", "Retreta", "Pantxika", "Hau dek hau", "Katiuska", "Debako Martxa" eta "Tatiago" piezekin osatutako egitaraua prestatu dute eta herritar guztiak eurekin bat egitera animatu nahi dituzte.



Txema Serranoren irudiak Metroan

Klub Deportiboko argazki taldeko Txema Serranok erakusketa ipini du Bilboko Metroan, Bizitegi elkarteak Giza Eskubideen Nazioarteko Egunaren harira #sintechoconderechos goiburuarekin Bizkaian garatzen ari den sentsibilizazio kanpainaren barruan. Kalean bizi den jendearen eguneroko bizimodua islatzen duten 28 argazki dira guztira eta metroaren geraleku ezberdinetan ikus daitezke: otsailaren 10era arte Abando, Indautxu eta Moyuan eta otsailaren 11tik martxoaren 11ra bitartean, berriz, Casco Viejo, Santutxu eta San Mamesen.

Txokolate artean marrazten

As Burgas Galiziako Etxekoek antolatuta, domeka arratsaldean umeendako marrazki lehiaketa egin zuten elkartearen egoitzan, datorren urtean Gabonak zoriontzeko postaletan zein erabili aukeratzeko. Parte hartu zuten umeek ederto pasatu zuten arratsaldea eta, marrazkiak amaitu eta jarraian, denentzat txokolate-jana prestatu zuten.



UEU-ren udaberriko ikastaroak

Udako Euskal Unibertsitateak otsaila-maiatza bitartean emateko hainbat ikastaro antolatu ditu. Eskaintza osatzen duten kurtsoetako batzuk "on line" egitekoak dira eta beste batzuk, berriz, klasera joatekoak, tartean otsailean Markeskuan eskainiko duten "Gure imaginarioa kantagintzaren bitartez" izenburukoa. Informazio gehiago jasotzeko zein matrikula betetzeko www.ueu.eus webgunera sartu.



"SkizopozikS" bertan behera

...eta kitto! Euskara Elkarteak urtarrilaren 27rako iragarrita zuen Markos Gimenezaren "SkizopozikS. Errezitaldi hitzperimentala" bakarrizketa bertan behera gelditu da. Kaleratutako informazioa irakurri eta plan egin zutenei barkamena eskatzea besterik ez zaigu geratzen.

etakitto.eus

Badakizu www.etakitto.eus webgunean
...eta kitto! eta Txikitto! guztiak eskura dituzula?





AINARA RIVERAS

Urte berri, erronka fresko

Hiru aste pasa dira urte berria hasi genuenetik. Uf! Gehienok seguruenaz ahaztuta eta egunerokoan bete-betean murgilduta egongo zarete dagoeneko. 2015a orain gutxi joan zitzaigula lekutan dugu ia denok. Kurtso hasieran egiten dugunaren antzera, hau ere garai aproposa izaten da bai, hasieretarako. Urte amaierarekin, ziklo bat itxi eta berria zabaltzen dela ematen du. Urteko lehenengo geldialdi esanguratsua izaten da. Niretzat, behintzat, hala da. Eta lurrari erreparatzen badiogu, hemen gurean, neguaren solstizioak ere argi berriaren etorrera gogorarazten digu. Eguna luzatzen hasten da eta haziak bere baitanernal aurretiko mekanismoak ere jartzen ditu martxan.

Eskaera, helburu eta erronka berrien sasoa da. Inoiz hasi eta bidean alboratu genuen horri helduko diogun promesa egiten diogu gure barruari. Sarri gure itxura eta ongizatea hobetuko duen jardueraren bat izaten da edo betidanik izan dugun zaletasun horri heltzen diogu berriro. Gure denbora bestearekin, alboan dugunarekin, laguntza behar duenarekin konpartitzea erabakitzen dutenak ere bagara. Nire aurtengo erronka berrietako bat hauxe! ...eta kitto! astekariak egindako gonbidapen honi baiezkoa eman eta urtean zehar, hainbatetan, zuengana momentuko edo interesgarri deritzodan gairen batekin bisitan etortzea. Azken urteetan, osasun naturala, prebentzioa eta transmisioa ditut ofizio eta, hezkuntza, kultura eta baloreak afizio. Hobetzea. Hori eskatzen diogu urte berriari. Hobera egitea izaten da erronka berrien jomuga: pattaldu egiten gaituen horrekin amaitzea, gure mugak gainditzea, ametsak egi bihurtzen hastea... Urteak ekarriko dugunaren zain egon barik -izango dira-eta onak eta ez hain onak- esanetik pasa gaitzen eguneroko jardunera eta nork daki zer egitera irits gaitzekoen. Ekin diezaigun, beraz, eta aurrera!

Letz Zep zuzenean, eguaztenean

Eguaztenean, 20:30ean, Led Zeppelin ezagunaren musika eskaintzen duen Letz Zep taldeak kontzertua emango du Coliseo antzokian. Ikusi dituztenek diotenez, "Led Zeppelin taldeari eskainitakoen artean onena da, bai Britainia Handian bai handik kanpora ere". Taldea esperientzia handiko lau musikari ingelesek osatzen dute eta, besteak beste, Ozzy Osbourne, Dr. Feelgood edo Uriah Heep bezalako artistekin batera birak egin dituzte, munduan zehar 30 jaialdi baino gehiagotan parte hartuz. 2016an Espainian han eta hemen kontzertuak ematen ibiliko dira, talde mitikoaren kanturik ezagunenak eskaintzen, "hard rock hutsak" osatutako ordu biko ikuskizunean. Sarrerak 25 euro balio du eta alde zuzeneko aukera dago Kutxabank-en bitartez, Coliseoko leihatilan edo, bestela, Birjiñape, Trinkete, Portalea Taberna, Xania eta Caserio tabernetan.



Coliseoak gospel kontzertua hartuko du

Gospel musika gustokoa dutenek horrekin gozatzeko aparteko aukera izango dute, herrikanpora joan barik: Gospel Bilbao-ren eskutik, urtarrilaren 29an kontzertua hartuko du Coliseo antzokiak. Gospel Bilbao proiektua 2012. urtean sortu zen eta gaur egun 30 kide baino gehiago dauka. Ikuskizunaren zuzendaria Elena Martin eibartarra da eta, kontzertua ematen Alain Gallego (zuzendariordea, pianoa eta teklatura), Juan Manuel Estoquer (baxua), David Diaz (gitarra elektriko eta akustikoa) eta Ciel Ademar Felipez (bateria) musikariek jardungo dute, 30 bat lagunek osatutako abesbatzarekin batera. Eibarko emanaldian, gainera, Eibarko Koru Gazteak ere lagunduko die.



Diotenez, "soinu-gozamena eskaintzeaz gain, emanaldietan abesten dituzten kantuen jatorria eta esanahia transmititzeko ahalegin berezia egiten dute". Sarrerak 10 euro balio du eta alde zuzeneko aukera dago, Kutxabank-en zerbitzuen bitartez zein Coliseoko leihatilan (astelehenetan 19:00-etatik 20:00-etara eta barixakuetan 21:00-etatik 22:00-etara eta kontzertua hasi baino ordubete lehenago).

"Euskal Harriaren ABDak" Coliseoan


Datorren astean, hilak 28an "Euskal Harriaren ABDak" filmaren emanaldia (euskeraz, gaztelarazko azpitituluekin) hartuko du Coliseo antzokiak, 20:30etan hasita (sarrerak 3 euro balio du). "Beldurrezko euskal zinemaren abezea" modu kolektiboan sortutako pelikula da: 26 film labur, beste horrenbeste zuzendarirenak, Katihotsak Logia kultur elkarteak bildu eta Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astean aurkeztu zituen azken edizioan. Proiektuan parte hartu dutenen artean Ane Urkiola eibartar zinemagile gaztea dago eta emanaldian "Zea... Bingo!" laburmetraia ikusteko aukera izango da. Katihotsak Logia-ko kideek, aurreko lanetan ("Joxean's Hil Eben" eta "Ataun of the Dead") egindakoaren bidetik, honetan ere euskarazko B saileko zinemaren aldeko apustua egin dute. Filmaren inguruko informazio guztia www.euskalharriarenabdak.com helbidean aurkituko duzue.





Tertulia poetikoa Ermuan

Ermuko Eskilarapeko Ateneoak tertulia poetikoa antolatu du gaur gauerako, 11. urteurrena ospatzeko 2016. urtean zehar egingo diren harira: "Poesia comprometida del siglo XX" izenburuko saioa 22:30ean hasiko da, Eibarren bizi diren Adolfo Castaños eta M^a Angeles Igartua, Bartzelonako Colectivo Poético León Felipe taldeko kideen eskutik eta sarrera doan izango da.



Toni Bright mentalista Elgetan

Gaur 22:30etan Toni Bright mentalista ezagunak "Volver a creer" ikuskizuna eskainiko du Elgetako Espaloia kafe Antzokian. Sarrerak 12 euro balio du alde zuzenetik erosiz gero eta, bestela, leihatilan 16 eurotan ipiniko dituzte salgai.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- Arrate Bengoa Milikua. 69 urte. 2016-I-14.
- Roman Gonzalez Pulido. 96 urte. 2016-I-14.
- Amador Gutierrez Gonzalez. 81 urte. 2016-I-16.
- Elicia Ronda Adrian. 85 urte. 2016-I-16.
- Francisco Cid Lozano. 87 urte. 2016-I-18.
- Fernando Barrutia Sololuze. 92 urte. 2016-I-19.
- Bernardino Guede Losada. 80 urte. 2016-I-20.
- Eulalia Sagastizabal Zuloaga. 93 urte. 2016-I-20.

jaiotakoak

- Ibon Lete Cobo. 2016-I-12.
- Mikel Iraeta Mendia. 2016-I-13.
- Irati Alonso Lluvia. 2016-I-14.
- Nahia Alonso Lluvia. 2016-I-14.

farmaziak

- Barixakua 22
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Zapatua 23
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Domeka 24
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- Astelehena 25
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
- Martitzena 26
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- Eguaztena 27
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Eguena 28
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- Barixakua 29
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

GAUEZ BETI - 2016AN-
Iraundegi (Calbeton, 19)

SUDOKUA

			9	3			6	
6			1		2	7		
7								1
		7						8
8			7		9			1
	2					5		
	1							4
		5	6		1			3
	3			2	4			

7	6	9	1	5	2	3	4	8
2	5	8	3	4	6	7	1	9
4	3	1	8	7	9	5	2	6
1	7	6	9	3	8	4	5	2
8	2	4	6	1	5	9	7	3
3	9	5	7	2	4	6	8	1
6	4	2	5	9	1	8	3	7
9	1	3	4	8	7	2	6	5
5	8	7	2	6	3	1	9	4

AURREKOAREN
 EMAITZA

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
- Alkohol. Anon.....943 20 13 25
- Alkohol. Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 22

GAZTELEKUA

16:30. Sukaldaritza. Indianokuan.

BILERA IREKIA

19:30. CARE Eibarko Errefuxiatuen aldeko Kontseiluarena. Portalean.

ANTZERKIA

20:30. "Taxi" (Pentación). 18 euro. Coliseoan.

Zapatua 23

WORKSHOP MARKET

11:00. Kionita, Pedrusco, Manderlay, Wandel, Ifeelnut eta gehiago.

12:00. Ätakonturen poltsa estanpatzea.

13:00. El_Txef_A dj set "vermout session"+Olibak. Biharriaren espazioan (Ubitxa 16-18).

ASTELENA HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta

16:30/20:30. 2-12 urte bitarteko umeentzat. 3 euro. Astelena frontoian.

BILERA IREKIA

12:00. Podemos-Ahal Dugu-rena. Nagua Alba eta Fernando Iglesias diputatuak eta Josetxo Arrieta senataria. Arrate Kultur Elkartearen.

URTEKO BATZARRA

16:00. Eibarko irratizaleen elkartekoa. Otarra elkartearen (San Kristobal, 11 behean).

GAZTELEKUA

17:00. Filma. Indianokuan.

KIROLA FAMILIAN

17:30. 2-5 urteko haurrak dituzten familiendako. Ipurua kiroldegian.

LAGUN TALDEA

17:30. "Sálvese quien pueda" jaialdia. 2 euro. Hez-kuntza Esparruan.

UMEENDAKO ZINEA

18:00. "Atrapa la bandera". El Corte Inglesean.

Domeka 24

ARDO EGUNA

11:00/15:00. Arabar Errioxako Ardo Egunaren lehen edizioa, Mondragon Unibertsitateko Tewo elkartearen eskutik. Ardoa, txistorra pintxoak, musika eta dantzak. Untzagan.

DANBORRADA

12:30. Kontzertua, *Usartza* Txistulari Bandaren eskutik, Eibarko Danborradaren eta *Molto Vivace* metal boskotearen laguntzarekin. Coliseoan.

GAZTELEKUA

17:00. Play/Wii. Indianokuan.

KIROLA FAMILIAN

17:30. 2-5 urteko haurrak dituzten familiendako. Ipurua kiroldegian.

Astelehena 25

URTEKO BATZARRA

17:00. Untzaga jubilatutako etxeko bazkideena. Untzagako jubilatutako etxean.

SOLASALDIA

18:00. "Enpresa-eredu berriak garatzeko eta harremanak partekatze beharra Euskal Herrian". Parte-hartzaileak: Antonio Cancelo, Angel Toña eta Tomas Arrieta. Armeria Eskolan.

Martitzena 26

IKASTEN

11:00. "Las guerras santas (2)" hitzaldia, Koldo Ortegaren eskutik. Armeria Eskolan.

IKASTEN

16:00. Puntu-tailerra.

17:00. Joskintza tailerra. Portalean.

SANBLAS TAILERRA

18:30. San Blas opilak egiteko, Berbetan programako kideentzat. Portalean (sukaldean).

HERRI BATZARRA

19:00. EHBildurena, 2016ko aurrekontuen inguruan. Kultur.

Eguaztena 27

IKASTEN

10:00. Mendi-ibilaldia: Eibar-Eitzaga/Aixola-Elgeta-Eibar (bazkaria eraman). Irteera Untzagako jubilatutako etxetik.

BILERA

19:00. "Gerrarik Ez/No en nuestro nombre" Eibarko taldearena. Arrate Kultur Elkartearen.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

KONTZERTUA

20:30. Letz Zep (Led Zeppelin taldearen tributua). Coliseo antzokian.

Eguena 28

URTEKO BATZARRA

11:00. Ikasten elkartearen asanblada eta bazkaria.

BILERA IREKIA

19:00. Kaleratzeak Stop Debabarrenarena. Portalean (3. solairuan).

KALEETAN KANTUZ

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

ZINEA

20:30. "Euskal Harriaren ABDak" (euskeraz, gaztelerazko azpitiuluak). 3 euro. Coliseo antzokian.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

23an: 19.45, 22.30

24an: 20.00

25ean: 20.30

"Sufragistas"

Zuzendaria: Sarah Gravon



(2 ARETOAN)

23an: 17.00, 19.45, 22.30

24an: 17.00, 20.00

25ean: 20.30

"45 años"

Zuzendaria: Andrew Haigh



(ANTZOKIAN)

23an: 17.00, 19.45, 22.30

24an: 17.00, 20.00

25ean: 20.30

"La Quinta Ola"

Zuzendaria: J. Blakenson



(ANTZOKIAN)

23an: 17.00 (euskeraz)

24an: 17.00 (gazteleraz)

"Koko, dragoi txikia"

Zuzendaria: Hubert Welland



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, **JULEN** Blanco Gantxegi, hillairen 19xan sei urte bete zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, **MAIALEN**, hillairen 3an lau urte bete zenduaz-en-eta! Muxu pilla bat danon eta, batez be, Jonen partez.




Zorionak, **NAHIA**, bixar lau urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat aitta, ama eta famelixaren partez.



Zorionak, **ION**, bixar urtiak beteko dozuz-eta. Lagunekin ondo ospatu. Laztan eta besarkada haundi bat danon partez.



Zorionak, **IKER**, zure lehelengo urtebetetzian. Patxo potolo bat famelixaren eta, batez be, Uxue eta Xabierren partez.



Zorionak, **XABIER**, hillairen 15ian bi urte bete zenduaz-en-eta. Laztan fuerte bat etxekuen eta, batez be, Uxueren partez.



Zorionak, **ANE!!!!**, gaur zazpi urte egitten dozuz-eta. Patxorik goxuea Jon eta famelixaren partez.




Zorionak, **MARTINA**, haraiñegun urtekoa bete zenduan-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **ANE**, hillairen 19xan 10 urte bete zenduaz-en-eta. Laztan haundi bat famelixaren eta, batez be, Iraiaren partez.



Zorionak, **MAREN**, hillairen 15ian lau urte bete zenduaz-en-eta. Laztan bat famelixaren eta, batez be, Noah eta Nahiaren partez.



Zorionak, **JURGEN**, gaur lau urte betetzen dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren eta, batez be, guztiaren partez.



Zorionak, **LEIRE**, hillairen 8xan urte bete egin zenduan-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **JANA** (16xan zortzi urte) eta zure osaba **PABEN** (17xan 34 urte) urtiak egin dozuez-elako. Famelixaren partez.




Zorionak, **MAIALEN** (martitzenian lau urte) eta **NORA** (atzo, zortzi), urtiak bete zenduaz-en-eta. Patxo haundi bat danon partez!!!




Zorionak, **JORGE** eta **MARIA**. Muxu haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, **BIKOTE**, 7 eta 16 urte bete dozuez-eta. Besarkada bat famelixaren eta, batez be, guztiaren partez.



Zorionak, **ALAIN** Luke, hillairen 17xan 11 urte egin zenduaz-en-eta. Eutsi zure irribarreari! Gurasuen partez.



Zorionak, **ALEX!!!**, gaur bost urte egitten dozuz-eta! Askotako maite zaittugu, potxolo!



Zorionak, **NORA**, bixar sei urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.

erakusketak

Urtarrilaren 24ra arte

Joseba Casasolaren "Argia+itzalak+fantasia" argazki-erakusketa. *Topalekuan.*

Urtarrilaren 31ra arte

Joan Buxo-ren argazki-erakusketa. *El Ambigü kafetegian.*
Almenarako argazki taldearen erakusketa. *Deportiboan.*
Iñaki Campos-en "Metronomos" argazki-erakusketa. *Portalea tabernan.*

Iñaki Campos-en rock-taldearen argazki-erakusketa. *Ez Dok tabernan.*

Otsailaren 7ra arte

"Gurutzatzen diren bizitzak" Xose Lois Carreira eta Iñaki Aranzabalen erakusketa. *Portalean.*

2016ko abendura arte

Jose Luis Apraizen arma-bilduma erakusketa. *Armagintzaren Museoa.*



Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira:

Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Bi etxe salgai Uxanurin (Nafarroa). 160 m²koa sartzeko modukoa (65.000 euro). 120koa barruko distribuzioa egiteke (30.000 euro). Tel. 653-735733.

1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 632-337083.
 – Lagun batentzako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 617-171520.
 – Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 637-363778.
 – 3 logelako pisua alokagai Eibarren, Ipuruauzoan. Haurrak dituztenentzako aproposa. Tel. 636-221469.
 – 3 logelako pisua alokagai Eibarren. Kalefazioarekin. Tel. 697-901000 eta 651-706981.
 – Gela biko pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 631-408528.
 – Pisua alokagai Esteponan (Malaga) portua eta hondartzaren aurrean, igerileku komunitarioarekin. 3 logela. 2 komun, egongela, sukaldaria eta terraza (itsasoari begira). Hamabostaldietarako (otsailetik ekainera arte). Tel. 645-728317 eta 943-201294.
 – Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. Merke. Tel. 632-192408.
 – Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 689-571882.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Taberna traspasatzen da Eibarren. Oso merke. Tel. 651-706981.
 – Garajea itxia salgai Matsarian. 21.000 euro. Tel. 661-377537.

3.2. Errentan

– 33 m²ko lokala alokatzen dut, hainbat aktibitatearako aproposa (bulegoa, klase partikularak...). Tel. 674-277661. Cristina.
 – Bi gela alokagai Arrasaten (bat jantzita). Estetika, masajeak, psikologoa, tatuatzailea... hainbat aukeratarako aproposak. Leku paregabea. Prezio onean. Tel. 603-723219. Aitor.
 – Garajea hartuko nuke alokairuan Errebal inguruan. Tel. 622-107353.
 – Martxan dagoen ilepaindegia alokagai Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Ilepaintzailea eskaintzen da Eibarko ilepaindegian batean lan egiteko. 15 urteko esperientzia. Tel. 650-988799. Marian.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 628-318570.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-918394.
 – Mutila eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 640-209948.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 662-430951.

– Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jardun eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-882838.
 – Gizona eskaintzen da nagusiak zaindu eta torno konbentzionalean lan egiteko. Tel. 633-892829.
 – Emakumea eskaintzen da goizez nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Erreferentziak. Tel. 616-607121.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 679-801543.
 – Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin eta nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Tel. 632-337083.
 – Mutila eskaintzen da sukalde-laguntzaile edo kamarero jardun eta nagusiak zaintzeko. Tel. 653-281376.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta kamarera edo sukalde-laguntzaile jarduteko. Erizaintza tituluekin. Tel. 666-380843.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Egun osoz. Geriatria tituluekin. Tel. 658-458061.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 658-458271.
 – Gizona eskaintzen da gauzez nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 650-513412.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu, garbiketara lanak egin eta sukaldari moduan. Tel. 634-709827.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-417946.
 – Gizonetara eskaintzen da garbiketarako egin, sukaldari-laguntzaile jardun eta nagusiak zaintzeko. Tel. 610-865694.
 – Emakumea eskaintzen da taberna, soziedadeak eta pegorak garbitzeko. Tel. 638-421827 eta 636-841158.
 – Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 692-258870.
 – Neska euskalduna eskaintzen da goizez umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-623978.
 – Gizonetara eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 679-912841.
 – Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-506373.
 – Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.
 – Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Gidatzeko baimenarekin. Tel. 631-343232.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu, sukalde-laguntzaile jardun eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-562380.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 638-338816.
 – Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak (baita gauzez ere) edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 679-910991.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 626-197217.
 – Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 634-863034.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 663-524539.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 686-561811.
 – Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 686-064608.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 943-744033 eta 637-102725.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu, garbiketarako egin eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 634-437852.
 – Gizona eskaintzen da nagusiak zaindu, garbiketarako egin eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 662-099453.
 – Mutila eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Geriatriko titulua eta gidatzeko baimenarekin. Tel. 655-132769.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-766652.
 – Neska eskaintzen da goizez nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 688-287983.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-425686.
 – Neska eskaintzen da pegorak, etxeak, tabernak, soziedadeak... garbitu eta nagusiak zaintzeko. Tel. 631-070225.
 – Neska eskaintzen da tabernetan lan egin eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-962653.
 – Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 682-277198.

4.2. Langile bila

– Fresadora CNC-ko mekanizatzailea hartuko luke Elgoibarko enpresa batek. Orduetara: 09:00-13:00. Tel. 943-744066.
 – Sukaldaria edo sukalde-laguntzailea behar da Eibarko taberna batean. Egun erdirako kontratua. Esperientziarekin. Tel. 943-206868.
 – Kamarera/o behar da asteburuetan egun gutxirako. Curriculum-ak: eibarkafe@gmail.com
 – Esperientziadun zeramista behar da Eibarko hortz-klinika batean. Tel. 943-700082.
 – Banatzailea behar da Txioakan. Gida-baimenarekin. Tel. 686-913746.
 – Emakumea behar da interna lan egiteko. Eguneroko hiru ordu libre (17:00-20:00) eta asteazken eta ostegunetan sei (10:00-16:30). Tel. 617-652130. Diana edo Aitor.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Unibertsitateko neska eskaintzen da ulermen arazoak dituzten umei klaseak emateko. Maila guztiak, banaka etxean eta merke. Esperientzia. Tel. 625-019711.
 – DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematika etabar ematen dut. 1-3 ikasleko taldeak. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Neskaen jaunartze-soineko salgai. Egocera eta prezio onean. Tel. 653-010861.

6.2. Eman

– Lokal baterako altzari eta sofa batzuen bila gabiltzia. Soberan badituzue, deitu. Tel. 618-559191.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Trapuzko kopina agertu da Correosen. Tel. 660-511773.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

Aurrite matrikulak

Urtarrilaren 25etik Otsailaren 5era

HAUR, LEHEN ETA DERRIGORREZKO



MOGEL ISASI D.B.H. 943 20 30 94



ITZIO D.B.H. 943 70 22 89



AMAÑA 943 20 72 50



ARRATEKO ANDRA MARI 943 20 72 35



J.A. MOGEL IKASTOLA 943 20 84 87

Ondo trebatuta,
etorkizuna gurea da

aurrematrikula
egiteko
epea

Online aurrematrikula:
www.hezkuntza.net

Euskal Eskola
Publikoa

PERTSONA HELBURU

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

2016-2017 IKASTURTEA



SAN ANDRES 943 20 79 95



URKIZU 943 12 17 78



Asko dira gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun



www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN



Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

mail: bistaeder@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN



José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**

mail: innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com